

---

## Liburutegiko arauak

---

Liburutegira sartzeko, irakurle txartela behar da. Doakoa da eta urtero berritzen da.

Biltegiko argitalpenak eskabide automatizatu bidez eskatzen dira webOPACen bitartez, eta Liburutegiko langileek ematen dituzte. Kontsulta bakoitzeko, gehienez ere, hiru titulu eskatu daitezke. Eskaera gehiago egiteko, aurrez eskatutako tituluren bat itzuli behar da nahitaez.

Dagokion urtea baino lehenagoko edo dagoeneko argitaratzen ez diren aldizkari zein bildumen kontsulta aurretiazko zitarekin egin behar da.

Irakurketa aretoko kontsultarako ordenagailuek Interneterako sarbidea dute, baina liburutegiko gaiekin erlazionatuta dauden ikerketa-kontsultetarako baino ezin dira erabili.

Liburutegiak ez du etxez etxeko mailegurik egiten.

Oharrak hartu daitezke eta idazketarako materiala, ordenagailu eramangarria eta argazki-kamera erabili daitezke. Motxilak, aterkiak eta gainerako objektu handiak Museoko txartel-leihatilan utzi behar dira.

Ordenagailu eramangarriak eta telefono mugikorrek soinurik gabe egon behar dira, eta, deiren bat egin edo jaso behar bada, irakurketa aretotik kanpora irten beharko da.

Ezin da jatekorik edo edatekorik sartu areto barrura.

Erabiltzaileek beti jarraitu behar dituzte Liburutegiko langileen argibideak.